Hernaniko Udala

HERRITARRENTZAKO ENERGIA HARRERA ZERBITZUA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Kontratuaren xedea:

Energian ahalduntzea behar beharrezkoa da trantsizio garaiotan. Horretarako beharrezko dira Herritarrentzako gertuko zerbitzuak, eta energia arloan zer esanik ez. Bada denbora bat zerbitzu hau eskaintzen dabilela Hernaniko Udala, batzuetan Hernaniko energia komunitatearen bidez eta besteetan funtzio hau beteko duten langileak kontratatuaz. Bulegoak urte hauetan zehar eginiko lana asko estimatu dute herritarrek, halaxe jaso zen azkena egindako "auzo biran" eta, beraz, zerbitzua egonkortzea da lizitazio honen xedea. Ez hori bakarrik, milaka euro dira zerbitzu hau erabiliaz hernaniarrek aurreztu dituzten euroak bulegoko gomendioei esker. Kontuan izan behar da energiaren mundua oso aldakorra dela, ordainketa terminoak aldiro aldatuz doaz eta kontratuak norbere beharretara ongi egokitu ezean, ordaindu behar ez genituzkeen gehigarriak ordaintzen ditugu azkenean. Ez zen horrela garai batean, energia merkatua egonkorragoa zenean, esaterako. Eranskinean doa Hernaniko energia bulegoaren lanari esker hernaniarrek aurreztu ahal izan duten kopuruen laburpena, bulegoa irekita egon den epean baitan.
Proposamena energia bulego zerbitzua egonkortzea da beraz, lizitazio honen bidez:

-IRAUPENA: urtebeteko kontratua, beste hiru prorroga ahalbideratzeko aukerarekin bi aldeek hala nahiko balute, gehieneko iraupena, beraz, 4 URTE.

-KOSTUA: BEZ barne **27.588 € urteko** aurrekontuarekin.

Hernaniko Udala

Metodologia:

Hernaniko Burujabetzen Etxean bulegoan presentzialki emango den zerbitzua planteatzen da, non zerbitzua erabili nahi duenak, aurrez email edo telefonoz hitzordua eskatu beharko duen eta adosturiko orduan bertaratu beharko duen zerbitzua jasotzera. Alabaina bulegoko arduraduna bulegoan egon eta norbait etorriko balitz, momentuan bertan artatzen saiatuko da ahal duen heinean aurrerago hitzordu bat adosteko aukerarekin. Kontsultak email edo telefonoz ere egin ahalko dira, horretarako email bat aktibatuko da eta telefonoarekin batera bulegoaren sarreran egongo dira biak erabiltzaileen eskura. Hernaniko Udalak, bestalde, zerbitzua martxan jartzerakoan, bere webgunean energia bulegoaren informazio zabala jarriko du herritarren eskura.
Zerbitzua eskaintzen duen langileak laneko baja bat tramitatuko balu, lizitatzailea langilea ordeztera behartuta egongo da bi eguneko epean.

Zerbitzuaren deskribapena:

Energia kontuetan herritarren eta enpresen sostengurako udal bulegoa kudeatzea. Energia aholkularitza arloan bai herritarrentzat eta bai profesionalentzat erreferentzia izango den topagunea. Bulegoaren xedea da, besteak beste, herritarrei eta enpresei indarrean dagoen energia araudiari, kostuei, diru laguntzei, kontratu motei eta energia-eraginkortasunari eta aurrezteari buruzko gaietan laguntzea, bai eta energia berriztagieetara hurbiltzea eta horien erabilera sustatzea ere. Azken batean, trantsizio energetikoan eman behar diren urratsetan herritarrei eta tokiko enpresei laguntzea da helburua. Energiak duen zentzu zabalean jardungo du beraz bulegoak, ez soilik elektrizitatean, baita gas, biomasa, eraikinen birgaitze energetiko eta orohar energiarekin zerikusia duen edozein kontsulta hartatu beharko da bertan eta, beraz, araudi eta diru laguntzei (EAZ-ak esaterako) dagokienez, egunean egon beharko dute energia bulegoa artatuko dutenak.

Bulegoa orain arte bezala Burujabetzen etxean kokatuko da, beheko solairuan. Espazio fisikoa, ordenagailua, interneterako sarrera eta bulegoko argindar zein berokuntza kostuak Udalak hartuko ditu bere gain.

Helburua:

- Energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren inguruko kultura energetikoa sustatzea.
- Autokontsumorako eta energia berriztagarrietarako instalazioei lotutako beste onuren eta aurrezkien inguruko informazioa ematea.
- Kontsumo elektriko, gas, gasoil edo bestelako energia iturrien optimizazioan informatzea eta laguntzea.
- Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako sistemen instalazioetan laguntzea.
- Unean-unean indarren dagoen dirulaguntza araudiaren berri eman eta tramiteetan laguntzea.

- EAZk (energia aurrezpen ziurtagiriak) tramitatzen laguntzea.
- Hernanin DBEa (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) kobratzen duten 700 familiatik gora ditugu, haiek eta pobrezia energetiko egoeran egon daudenei energia gaietan egin ahal dituzten aldaketen informazioa ematea: kontratu egokitzapenak, kontsumo ohiturak, energia prezioen berri izatea eta abar.
- Emakumeen eta gizonen egoera, beharrizan, interes eta problema espezifikoak kontuan hartuz, haien eskaera zehatzei arreta ematea.

  Hala ere, baliabideak eta bulegoak jendaurrerako izango duen ordutegia, bulegoak izango dituen erabiltzaileen artean ahalik eta era ekitatiboenean kudeatu beharko dira; alegia, bulegoan kontsulta egiteko itxoiten dauden herritarrek edo enpresek lehentasuna izango dute, bigarren aldiz kontsulta egin nahi duenaren aurrean.

Zerbitzuak:

Energia aholkularitzako guneak jarraian zehazten diren arloen inguruko aurrez aurreko informazioa azalduko die bertaratzen direnei (herritar zein enpresei). Email bidez zein telefonoz ere artatuko beharko dira kontsultak. Era berean, azaldu beharreko edukia sortzeaz eta eguneratzeaz arduratuko da:

- Faktura energetikoa (gasa eta elektrizitatea):
  - ✓ Faktura optimizatzeko aholkularitza zerbitzua.
  - ✓ Fakturaren azalpena.
- **Dirulaguntzak**:
  - ✓ Energia Berriztagarrien proiektuak finantzatzeko laguntzen inguruko informazioa eta aholkularitza .
  - ✓ Autokontsumoko eta autokontsumo partekatutako prozesuen legezko alderdietan informazioa eta aholkularitza.
  - ✓ Eskuragarri dauden dirulaguntzen deialdien inguruko informatzea.
  - ✓ Diru-laguntzen kudeaketan laguntzea.
- Birgaitze energetikoa:
  - ✓ Fatxaden isolamenduari buruzko (horma, leihoak, lurra, sabaia) informazioa.
  - ✓ Ezaugarriak, onurak, dirulaguntzak...
- Teknologia berriztagarrien inguruko informazioa eta ezaugarriak azaltzea:
  - ✓ Termikoak.
    - Eguzki-energia termikoa.
    - Aerotermia.

- Geotermia.
- Biomasa.

✓ Elektrikoak:

- Fotovoltaikoa

➢ Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria:

✓ Informazioa eta betebehar legalak.

➢ Zaurgarritasun energetikoa:

✓ Laguntzen informazioa

➢ Difusio eta komunikazio lanak:

✓ Formazioa:

- Herritarrei zuzendutako formazio saioak identifikatu eta bideratu
- Enpresei zuzenduta: arkitektoei, finka-administratzaileei...

➢ Hernaniko komunitate energetikoa eta Udalak berarekin duen hitzarmenaren berri ematea autokontsumo kolektiboan parte hartu ahal izateko.

✓ Informazioa

✓ Bazkidetza eta onurak.

Bulegoko ezaugarriak:

Egutegia: urtean zehar urtarriletik maiatzera eta irailetik abendura egongo da irekita, guztiak barne, eta gabonetan eta Aste Santuan bina aste itxita egongo da.

➢ Ordutegia:

Bulegoa irekia:

Asteartea eta osteguna: 10:00 - 13:00 / 15:00 - 18:00
Asteazkena: 10:00 - 13:00

Urtero 570 ordu izango da, beraz, irekita bulegoa.

➢ Zeini zuzenduta:

- Herritarrei
- Herriko elkarte, enpresa eta eragileei

Hernaniko Udala

Aurrekontua:

ENERGIA BULEGOAREN AURREKONTUA URTE BAKOITZEKO

22.800€ urteko

BEZa %21: 4.788€

Guztira: 27.588€ urteko BEZ barne.

Iñaki Zulaika Ezenarro

Udal arkitekto teknikoa

IÑAKI ZULAIKA EZENARRO - 44143002E

Digitally signed by IÑAKI ZULAIKA EZENARRO - 44143002E
Date: 2025.12.12 09:08:16 +01'00'

2025eko azaroaren 13an